AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

66

1467/2012 EBAZPENA, azaroaren 23koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, lekualdatze-lehiaketako epaimahai kalifikatzailea izendatzen da, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako kudeaketa eta zerbitzuetako langileen lanbide-taldekoentzat.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 20ko 793/2012 Ebazpenaren bitartez, osasun zerbitzu-erakundeetan destinoa izango duten kudeaketa eta zerbitzuetako langileen lanbide-taldeko lekualdatze-lehiaketa deitu zen (EHAA 173. zk., 2012ko irailaren 5ekoa).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak lekualdatze-lehiaketa kalifikatuko duen epaimahaia izendatu zuen, ebazpen horren 7 oinarrian ezarritakoari jarraiki.

Adierazitakoagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliatuz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 20ko 793/2012 Ebazpenaren bitartez deitu zen kudeaketa eta zerbitzuetako langileen lanbide-taldekoen lekualdatze-lehiaketako epaimahai kalifikatzailea izendatzea. Epaimahai hori Ebazpen honen I. eranskinean agertzen diren kideek osatuko dute.

Bigarrena.– Ebazpen honek eman den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Deialdiko 11. oinarrian ezarritakoaren babesean, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea emango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 23a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.

I. ERANSKINA

EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA

KUDEAKETA ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK

Epaimahaiburua:

– Titularra: Paíno Ortúzar, María Teresa.
– Ordezkoa: Saenz Zubiaga, María Natividad.

Lehen epaimahaikidea:

– Titularra: Ruiz Osma, Jacinto.
– Ordezkoa: Alonso Pérez, Laura.

Bigarren epaimahaikidea:

– Titularra: Asensio Olavarria, Fernando.
– Ordezkoa: Garai Letamendi, Garbiñe.

Hirugarren epaimahaikidea:

– Titularra: Pérez Sanz, Iñaki.
– Ordezkoa: Redondo Sánchez, María Teresa.

Laugarren epaimahaikidea:

– Titularra: Alegre Alegre, Juan José.
– Ordezkoa: Elexpuru Marcaida, José Luis.

Bosgarren epaimahaikidea:

– Titularra: Pérez Pérez, Luis María.
– Ordezkoa: Pérez San José, Ana María Cira.

Idazkaria:

– Titularra: Azumendi Ruiz de Arechavaleta, Iñigo.
– Ordezkoa: Mielgo Rubio, Maiteder.